

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko maiatzak 6 · 1227. zenbakia



BUELTAN DIRA HERRIKO JAIAK

2 MÓ 229€
BETAURREKO PROGRESIBO



BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

Kontuz hartu optikaren laguntzaren erantzukizkoa.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multioplicas.com

MGEP


MONDRAGON GOI DUALA FORTRESKOA
C/DE MARIKA ANTONMENDIARTELA 3, 48940

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Aste irekien jarraitutasia
Artisautasuna eta fabrikazio teknikoa	Asteartez 7 11:00
Arloko teknologia Sistemak Minuetan	
Fabrikazio Teknikoko Dizekua	
Fabrikazio Teknikoko Produktibitate Programak	
Industriako Informatika	

www.mondragon.edu/Lesbionheziak eta jorjaya.fern@mondragon.edu
941 208 701 - 941 208 802

GEROAK EREIN



Ni albarria naiz eta gainera betidanik izan nahi nuen albarria, baina utteekin asko sufritzen dela konturatu nintzen eta oso zaila dela lana eta familia bitartea uztartzea. Horregatik beste gauza bat ikustea erabaki nuen. Orain dela urte asko lagun batek, Fabrikazio Mekanikoko Dizekuko zikloa ikasi zuten esia rik neuk ere MGEPen bi ikastaro egin nideen bere parailan, lan egiten nuzerian konkretuki diseinatu zer zelan buruz idia bat egiteko. Bat SolidWorks-an buruzkoa izan zen eta, bestea, inmatzio teknikoari buruzkoa. Askok gustatzen zitzaizdan esperientzia eta buru-belarri helburua honetan jartu nuen.



Irene Souto Carrera
MGEP Dizekuko Fabrikazio Mekanikoko Dizekuko ikaslea

Zergatik aukeratu zenuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoa?

MGEPen ikustea erabaki nuen eniferentzia ornik ezusteko, ikaslearengatik, instalazioarengatik eta etorkizuneko aukerarengatik. Hala ere informazio gehiago bilitzeko aste irekietan parte hartu nuen eta ikasle Urribeskosoa koordinatzailearekin zuzenean egon nintzen nire zalantzen inguruan hitz egiten. Askok eskertu nuen berak azalduzako gertatuzuna eta konpromisoa.

Heziketa zikloa honetan ETHAZI metodologiak aktiboekin lan egiten duzue, hau da, ekipolanean eronak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako eronak egin dituzue? Lehen mailan Zuzendri pneumatikoaren eronka egin genuen eta kurtoa amaieran verding mailara bideratzen eronka. Bigarrene mailan 3DExperiencekin lan egin dugu ingurune kolaboratibo batean, plastikozko injektore baten zatia diseinatuzko eta muntatzeko. Azken eronkan skate bat diseinatu, ekoiztu edo fabrikatu eta muntatu dugu, taulatik hasi eta truckeraino. Esperientzia orna izaten ari da, asko ikasi dugunaren sententzioa duf: bai diseinatu eta simulazioak programak erabiltzen (injektioa, forja-lana) bai bostrenak egiteko tresnak erabiltzen.

DUALA egin duzu? Nolako izan da esperientzia?

Eskolatzeko FAGOR AUTOMATIONen fabrika sartzeko zortea izan nuen. Kalitate sailan lan egiten dut eta oso pozik nega, lana sakonkeria delako eta lan-giroa oso ona delako. Fabrikara iristen edo atzetan diren piezak plano bakoitzeko jarraituak araberako kontrolatu behar ditugu, hainbat tresna eta makina erabiliz egiaztatzenak egiteko. Egia da une batzuetan gogorra egin dela ikasketak eta lana bideragari egitea, baina menatu du, lehen eskulitik ezagutzen baita zikloa amaitu ondoren egin ahal izango dugun lana, eta gure ibilbidea arlo baterantz edo besterantz bideratzen lagun diezagukeelako.

Hemendik aurrera, zein da zure asmoa?

Nire asmoa arlo honetan lanean jarraitzea da, baina ez dut baztertzen ikastaro laburragoekin prestatzen jarraitzea, nire ezagutzak uneoro hobitzeko.

zarelako para

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

eta kitto!
euskarako elkarteak

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkarteak@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Jarraitu gaitzazu!



Eibarko datuek diote lanean euskara gehiago erabiltzen dela kalean baino, euskara-planak dituzten enpresa asko dago eta administrazioan lan egiteko euskara beharrezkoa da. Dena onurak dira, baina oraindik ere gazte askok erdara aukeratzen dute Lanbide Heziketako ikastetako egiterakoan. Idoia Uruñuela, Pablo Lopez eta Amets Aierdik euskararen aldeko apostua egin dute eta euren testigantzak jaso nahi izan ditugu.

Asteazken arratsaldean Urkotronik enpresaren biltegian egindako agerraldian eman dute ezagutzera Zaporeak elkartearen erronkari esker zenbat janari biltzea lortu den: ia 15 tona lekale, arroz eta pasta eta 8.000 bat euro dirutan. euro dirutan.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

8.150 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Lagun bat duenak altxorra badu, bost dituenak bizitza-asegurua du. Zenbat urte hartuko dituzun jakiteko, ez dago batek duen bere lagun-zirkulua begiratzea bestelakorik. Konfiantzazko bost baditu, neurri horretan handituko zaizkio infarto batetik irteteko aukerak. Lagunak izateak eragin handiagoa du dietak edo ariketak baino; erretzeari lagatzea bezain pisutsua da. Hori bai, lagunak zaindu egin behar dira; onenei egunero gutxienez ordu erdia eskaini behar zaie. Horrek, jakina, baditu bere mugak: gure burmuinak gehienez 150 lagun onartuko digu, ordenagailu baten memoriaren antzera. Horrez gain, kontaktu fisikoa ere beharrezkoa da, bideo-dei batek ez du balio.

ROBIN DUNBAR, antropologoa

Historiako lehen pelikulan, Lumière anaiek egindako hartan, beharginek baziren protagonista, gaur egun ez genuke halako argazkirik ateratzea lortuko. Lantegitik banan-banan irteten direlako. Orain, horrelako irudi bat lortzeko, ez zaitez tailer baten ateetan geratu; aukera bakarra urtero antolatzen duten enpresen arteko lasterketan izango duzu. 127 urte pasatu dira pelikula labur hartatik eta, botere politikoak, ekonomikoak eta langile-klaseak osatzen zuten ekuaziotik, lehen biek indartsu jarraitzen duten bezala hirugarrena batek daki non dagoen. Aldaketa-motorea izan behar zuenak, mendea pasatuta, ez du ez protagonismorik, ez motorrik. Baina Historiak bere bidean jarraitzen du.

ALBERTO MOYANO, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA → Egoera zailei egokitzen jakin behar dela adierazten duen errefracua.

OGIDU → Obeditu. "Nausixak agindutakua ogidu biharrekua"

1957

Valentina taberna

Sasoi batean Errebal kalean, Ibarkurutzeko iturriaren pareko etxearen beheko solairuan, gaur egun Iñaki Rezolaren harategia dagoen lokalean, Valentina ize-neko taberna egon zen. Plazao-laren argazki honetan barraren beste aldeko bezeroei zerbitzen ibili ziren emakumeak ikusten dira, amantala soinean dutela, beharrari ekiteko prest.



Farmaziak

BARIXAKUA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 9
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 10
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 11
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 13
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Yosu Goikoetxea Torres**. 95 urte. 2022-04-23.
- **Pedro Maria Bilbatua Bergara**. 95 urte. 2022-04-27.
- **Prudencio Jimenez Garcia**. 96 urte. 2022-04-27.
- **Alberto Oiarzabal Prieto**. 85 urte. 2022-04-29.
- **Francisco Navarro Colina**. 91 urte. 2022-04-29.
- **Eloisa Benito Saez**. 69 urte. 2022-04-30.
- **Esperanza Negro Del Barrio**. 89 urte. 2022-05-1.
- **Elvira Lopez Garcia**. 66 urte. 2022-05-4.
- **Josefa Avendaño Perez**. 89 urte. 2022-05-4.

Jaiotakoak

- **Lina Akarouch Lahri**. 2022-04-27.
- **Nerea Egiguren Kortazar**. 2022-04-28.
- **Ismail Muhammad**. 2022-04-28.
- **Elaia Altuna Narbaiza**. 2022-04-29.



Greziako errefuxiatuentzat 15 tona janari bildu ditu Zaporeak elkartearen erronkak

Eguaztenean eman zuten ezagutzera Zaporeak elkartearen erronkari esker zenbat janari bildu den: ia 15 tona lekale, arroz eta pasta eta 8.000 bat euro dirutan. Erronkan parte hartu duten herrietako alkateak, sukaldariak eta boluntarioak oso pozik daude herritarren erantzunarekin, eta datorren urtean Mutriku eta Mendaro ere batzea espero dute, "horrela, Debabarrenean egiten duguna beste eskualde batzuetara zabaltzeko" esperantzarekin. Bestalde, zapa-

tuan Errebalen egin zen zozketan, hauek dira zazpi menu berezirekin eta Eusko Label saskiarekin saritutako zenbakiak: 1751 (Baratze), 3045 (Casino), 1013 (Salegui), 3422 (Belaustegui), 1800 (Mendiola), 4595 (Sagarra), 1658 (Amatxi) eta 4785 (Eusko Label saskia). Saridunek hiru hilabeteko epea daukate zozketaren antolatzailerekin kontaktuan ipini (679 95 09 07 telefono zenbakira deituta) eta saria jasotzeko, bestela ordeko zenbakientzat izango da.

60. hamarkada eta Trantsizioa bizi izan zutenen testigantzak bildu ditu Ego Ibarrak

Ego Ibarra batzordeak 1960. hamarkadaren eta Trantsizioaren lekuko izan ziren 15 eibartarren lekukotasuna jaso du. Carmen Apellaniz, Emilio Aiastui, Felix Arroijtjaregi, Vicente Belda, Arrate Berasaluze, Alfredo Elortza, Mateo Guilabert, Josu Ibartutxi, Mikel Larrañaga, Maria Elena Muga, Jorge Perez Jauregi, Elena Piedra, Carmen Retenaga, Maria

Luisa Ruiz eta Begoña Vesga izan dira elkarrizketatuak. Lekukoek gai asko eta ezberdinak jorratu dituzte: errepresioa, Goi Argi elkarte, Eibarko pinadietan egindako bilera klandestinoak, TEFISO elkarte, Juan XXIII. Kontsumo-elkarte, Komite Antinuklearrak, 60ko hamarkadako musika-lehiaketak, deportazioak, Jai-Alai, tabernak eta poteoa, politikagintza...

Dantzaren Nazioarteko Egunaren ospakizunak bideoan

Aurreko asteko barixakuan Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Eibarren dantzaren sustapenean diharduten elkarteek, taldeek eta eskolek dantzaleku bihurtu zituzten herriko plaza eta parkeak, arratsaldetik eskaintzen hasi ziren erakustaldiekin. Jaiaren amaiera Untzagan izan zen, Mugi Panderoa taldeak eskaini zuen erromerian. Herriko toki ezberdinetan egindako dantzen bideoa gure YouTube kanalean ikus dezakezue.



Erakusketa berria ikus daiteke Museoa

Armagentzaren Museoa XX. mendeko prebentzioari buruzko kartelen erakusketa zabaldu zuen atzo, Fraternidad-Mupresparen eskutik. Ekainaren 5era arte 48 kartel egongo dira ikusgai, laneko segurtasunaren, prebentzioaren eta laneko osasunaren ingurukoak; eta, horrez gain, prebentzioaren irudiak joan den mendean izan duen bilakaera ikusi ahal izango da. Erakusketa ibiltaria da eta prebentzio-kultura sustatzea du helburu.



Eguenean Legebiltzarraren parean egingo den protestara joateko autobusa Eibartik

Datorren astean, maiatzaren 12an, Eusko Legebiltzarraren aurrean egingo duten protesta izan zuten hizpide astelehenean, pentsio publiko duinen aldeko elkarretaraztean.

Manifestazioa 11:00etan abiatuko da Gasteizko udaletxeko plazatik eta bertara joateko autobusa antolatu dute Debabarreneko pentsiodunek (Eibartik 09:00etan irten eta 14:00etan itzuliko da) eta joan nahi duenak ahalik eta lasterren eman beharko du ize-na (martitzenerako gehien jota),

pentsiodunen ordezkariaren bati esanda edo, bestela, zuzenean Eibarbus-era deituta (650710336 telefono zenbakira).

Debabarreneko Pentsiodunen ordezkariak diotenez, Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari zuzeneko eskaera egitea da datorren asteke protestaren helburua: "Babes espezializatu eman diezaietela pentsiodunon aldarrikapenei eta beharrezko erabakiak har ditzatela Gutxieneko Pentsioa 14 ordain-saritan 1.080 euro garbikoa izatea errealitate bihur dadin".

Sukaldaritza ikastaroa antolatu dute Untzagako jubilatutako etxeokoei

Untzagako jubilatutako etxeokoei antolatuta, sukaldaritza ikastaroa egingo da Portalean maiatzaren (10, 17 eta 24an) eta ekainean (7 eta 14an). Zaldibarko Karobi jabetzeko Iñigo Garatek emango du eta prezioa 40 eurokoa da. Interesa izanez gero, zuzendaritzarekin kontaktuan ipini.



AUTUAN

SAREKARRATERA MENDI IBILALDIA ANTOLATU DU

Eibarko Sare elkarteak, etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako dinamikaren baitan, Arraterara mendi ibilaldia antolatu du maiatzaren 14rako. Urkizutik abiatuko dira, 10:00etan, bertatik Santa Kurutzera eta, handik, Arrateraino oinez joateko.



ESPEZIALIZAZIO-IKASTARO BERRIARI BURUZKO INFORMAZIO SAIOA

Armeria Eskolak espezializazio-ikastaro berria, "Industria-mantentzearen digitalizazioa" eskainiko du 2022-23 ikasturtean (D ereduari), eta horri buruzko informazio-saioa egingo dute astelehenean, maiatzaren 9an, 18:00etan Armeria Eskolan. Bestalde, aurrematrikula maiatzaren 9tik 27ra egin beharko da, erdi eta goi mailako zikloekin batera, aurreko urteetan baino hilabete inguru lehenago.





Kontsumo-eredu arduratsuagoaren aldeko jarduerak antolatu dituzte hilaren 14rako

Egoaizia, beste erakunde aliatu batzuekin batera, mapa birtual bat sortzeko lanean ari da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eibarko Udalak babestutako “Eibar eraldatzailea” proiektuaren barruan, “Eibarko kontsumo-eredua arduratsuagoa, kritikoagoa, eraldatzaileagoa eta feminista izan dadin”. Bidezko merkataritzaren munduko eguna dela eta, datorren zapatuan, maiatzak 14, Egoaizia, Proyde-Proega eta Aldatzen-ek, Untzagan egingo dituzten jardue-

retan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak. Bestek beste, bidezko merkataritzako produktuen salmenta eta doako dastatzea, haurrentzako tailerrak Zorionak ludotekaren eskutik, zuzeneko musika, eta bidezko merkataritzako produktuen hiru otarren zozketa antolatu dituzte.

Gainera, eibartarrek goiz osoan zehar egingo den kontsulta parte-hartzaile baten bidez bat egin ahal izango dute “Eibar eraldatzailea” proiektuarekin.

Altxorraren bila jolasa antolatu dute biharko Gurutze Gorriko gazteek

Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriak haurrentzako jolasak antolatu ditu biharko Torrekuian (anbulatorio zaharrean), 11:00etatik 13:00etara, aisialdia proiektuaren barruan. LH1, LH2 eta LH3ko haurrentzat izango da ekintza, dohainik, nahi duten guztientzat. Altxorraren bila jolasa egingo dute Eibarko kaleetan zehar. Gazteen Gurutze Gorriko boluntarioek ekintza horrekin hasiko dute proiektua Eibarren eta, kurtsoa amaituurretik, beste adin tarte batzuentzat beste ekintza batzuk egingo dituzte.



Ibur-erreak eta inguruak ezagutu eta garbitzeko irteera antolatu dute

Eibarko Baso Biziak natur elkarrekin, Udalarekin elkarlanean, Ibur-erreak eta inguruak garbitu eta ezagutzeko irteera antolatu du maiatzaren 15erako. Untzagatik irtengo dira, goizeko 09:45ean, eta Ego ibaiaren ibilbideari jarraituko diote, Ibur-erreakarantz: “Helduek erreka eta inguruak garbituko dituzte, eta umeekin erreka egerra aztertuko dugu: ume txikienek gauza bisualak aztertuko dituzte

(habitataren eta fauna eta flora-ren karakterizazioa...) eta helduek uraren ezaugarri fisiko-kimikoak”. Ondoren, 12:30-13:00 aldera Elgetarako bideko lehen parkean elkartuko dira eta handik pasatzen den erreka aztertu eta garbituko dute. Ondoren, ogitarteko bana eta sagar-zukua banatuko dute. Parte hartzera animatuz gero, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzi.

Jaietan ederto pasatzeko moduko asteburua daukagu aurretik

Maiatzarekin batera ailegatu zaigu jaietan buru belarri murgiltzeko sasoia. Azken bi urteotan, pandemiaren eraginez, jaiak ganoraz ospatzeko aukerarik ez dugu izan, baina aurrean bai, gaitza gure artean zabaltzen hasi aurretik ezagutzen genituen jaiak bueltan dira eta, gainera, badirudi inoiz baino gogo handiagoarekin bizi nahi ditugula herriarrok.

Hileko lehen eguna jaia izanik, badirudi maiatza jaietarako hilabete ezin aproposagoa dela. Eta, zalantzarik izanez gero, egutegiari begiratu baino ez dago iritzi hori berresteko: asteburu honetan Santa Kurutz egunaren inguruko ospakizunak eta Galiziako Etxekoek antolatzen dituzten Dia das Letras Galegas; hurrengo asteburuan San Isidro; hurrengo zapatuan, hilaren 21ean, Tantan ez Tantan Eibarko euskalgintzaren eskutik ospatuko den jaialdia; eta, azken asteburuan, Klub Deportiboak antolatzen duen Euskal Jaia.

Galiziako Etxekoen eskutik, gaurtik domekara ospatuko dira XXXVII. Dia das Letras Galegas jaiak, Florencio Delgado Gurriaran poetaren omenez. Gaur 19:00etan jai-batzordearen taberna zabaltzearekin batera egingo du eztanda jaiak Urkizun. Olagarroa, enpanada, Albariño eta Ribeiro ardoak... dastatzeaz gain, Os Galaicos taldekoen musika, pailazoen ikuskizuna eta Solara orkestrarekin dantzaldia prestatu dituzte jaien lehen egunerako.

Bihar joko ezberdinetako txapelketek eta herri kirolen erakustaldiak beteko dute egunaren lehen erdia. Eta beste erdia, berriz, musikak eta dantzek: 18:30ean hasiko dira Galiziako musika eta dantzak, Os Galaicos eta Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Eta gaueko dantzaldia Ritmo Joven orkestrak eskainiko du. Eta domekan, 11:45ean, Os Galaicos eta Eibarko Trikitilariak elkarrekin joango dira kalejiran, Untzagatik Urkizura, bertan, Kezka dantza taldearekin batera, dantzak eta musika eskaintzeko.



As Burgas Galiziako Etxeko Os Galaicos dantza eta musika taldekoak arituko dira jaiak girotzen. SILBIA HERNANDEZ

Eta arratsaldean, berriz, Ustekabe txarangak girotuko du Urkizu, 18:30etik aurrera.

Domekan Santa Kurutzen

Horrez gain, martitzena Santa Kurutz eguna izan zela eta, domekan ospatuko dituzte jaiak Gorosta eta Mandiola auzoetako biztanleek, izen bereko ermitan eta inguruan. 09:45ean hasiko da Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik (izen-ematea bertan, 09:30ean) eta parte hartzera animatzen diren guztien artean saria zozketatuko da. Meza 11:00etan hasiko da eta, ondoren, hamaiketako egingo dute, trikitilariak girotuta. Haurrentzako jolasak eta herri kirolak ere egingo dira, Hodei Ezpeleta, Jokin Urretabizkaia eta Patxi Mingegia aizkolarien eta Hodei Iruretagoiena "Izeta IV.a" eta Mikel Lopetegi "Urra" harri-jasotzaileen eskutik. Bazkaria Ixuan izango da eta, ondoren, erromeria egingo da, Oier Balzola eta Unai Andonegik alaitua.

Euskal Jaia normaltasunera itzuliko da 57. edizioan

Egoerak horretara behartuta, azken bi edizioak abiadura txikian egin ondoren, aurten Euskal Jaiak ohiko bidetik ekingo dio ospakizunari. Eibarko Klub Deportiboko kultura batzordeak urtero maiatzaren azken astebururako prestatzen duen egitarauak oraingoan ekitaldi jendetsuenak berreskuratuko ditu, tartean azoka, kantu-afaria, herri-bazkaria eta dantzaldia.

Larrain-dantza ikastaroak motorrak berotzen hasteko aukera eskaintzen die martitzenero, arratsaldeko 19:00etan, Kultuko areto nagusian dantza horren pausuak bere egiten ikasten doazen guztiei. Horrekin batera, bada prestatutako programazioan guztiz berria den ekimena: apirilaren 4an martxan ipini zuten eta maiatzaren 28ra arte iraungo duen Eibarko Euskal Jaiko 1. Pala Txapelketa. "Eibarko 12 bikotek dihardute jokatzan astero Astelena pilotalekuan eta finala hilaren 28an izango da, goizeko 10:00etan hasita", diote Deporreko pala batzordekoek.

Behin azken asteburuan sartuta, barixaku arratsaldean umeentzako tartea izango da, ondoren kale-animazioa eta, eguna amaitzeko, kontzertuak. Kalian Jolasian saioak bi ordu iraungo du, 17:00etatik 19:00etara, eta Bizikleta Plazan egingo da. GOTx Game Of Txaranga elektrotxaragaren kale-animazioak hartuko dio lekukoa, 19:00etatik 21:30era, herriko kaleak girotuz. Eta gaueko 23:00etan kontzertua hasiko da Untzagan jarritako karpán: Mconak taldeak joko du 00:30ak arte, eta Mugi Panderoak erromeria eskainiko du 01:00etan hasi eta 03:00ak arte.



Zapatu ezin beteagoa

Lehen aipatutako 1. Pala Txapelketaren finala jokatu da Astelena 10:00etatik aurrera eta ordu berean hasiko da Artisau eta Baserritarren Azoka Toribio Etxebarria kalean. Betiko lez, Eibarko eta kanpoko artistauek hartuko dute parte bertan, gure herriko baserritarrekin batera. Eibart elkartaren eta Debemenen eskutik antolatutako ekitaldi horrek arratsaldeko 14:00ak arte iraungo du. Artisauen zerrenda oraindik osatu gabe badago ere, parte hartuko duten baserritarrak honakoak izango dira: Mandiola Gañeko Eneritz Alberdik (ardi gazta), Loixolako Olatz Alberdi (barazkiak), Sosolako



Enrike Gisasola eta Aizpea Eizagirre (ardi gazta eta ogi ekologikoak) eta Soraluzeko Egotza baserriko Nagore Martin (ahuntz gazta).

Eguerdiko 12:00etan, T. Etxebarrira kalean bertan, herri-kirolarien eta bertsolarien jardunaldia izango da, herriko jendearen parte-hartzea bultzatzen duten ekimenetan. Eta, jakina, sabela betetzen joateko goiz osoan talopostua ere egongo da, Gure Esku Dago ekimenaren bidez.

Bazkal osteko tartea atzean lagata, Euskal Jaiko arratsaldeko egitarauari ekingo diote, kale-animazioarekin abiatu eta kantu-afariarekin amaitzeko. 19:00etan trikipoteoa hasiko da kaleetan zehar, Eibarko trikitilariak lagunduta, eta handik ordubetera, 20:00etan, Kittu musika taldeak lagunduko dio zeregin horretan, bien kasuan 21:30era arte. Ordu horretan hasiko baita kantu-afaria Untzagako karpan. Hor badi-ra hainbat berritasun: alde batetik, Biziminak elkarteak prestatuko du afari hori; eta, bestetik, “oholtzara taldeka igo beharrea, denok batera abestuko dugu mahaitik”. Abestuko diren kantuak Kittu musika taldeak joko ditu eta, ondoren, Jainaga eta Narbaiza bikotearekin goizaldera arte iraungo duen erromeriari ekingo zaio.

Dantzan egiteko proposa

Domekakoa izaten da Euskal Jairen inguruan dantzan egiteko aukera gehien batzen dituen eguna. Eguerdialdean, goizeko 11:45ean, abiatuko dute Urkizutik Euskal Jaiko kalejira Untzagaraino joateko. Bertan izango dira, urterokoari jarraituz, Dantza Ikuskizunean parte hartuko duten taldeak, gaiteroak, joaldunak eta Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak. Behin Untzaga plazan, Dantza Jaialdia izango da 12:30etik aurrera, Donibane Lohitzuneko Be-



Herri-kirolek euren tartea izango dute zapatu goizeko azokan. ARTXIBOA

giraleak eta Eibarko Kezka taldeekin. “Aurreko edizioetan ez bezala, oraingoan talde bakarra ekarriko dugu kanpotik”, diote antolatzaileek.

Jarraian herri-bazkaria hasiko dute 14:30ean eta, behin hori amaituta, erromeriaren tartea zabalduko da, Patxi eta Konpainiarekin. 17:30ean hasita, bi orduko iraupena izango du ekimen horrek, ondoren Euskal Jaiarekin amaitzeko egingo diren Larrain-dantzaren bi saioekin: 19:30ean hasiko da lehenengoa plazan bertan eta bigarrena handik ordu erdira Deportibo parean, kasu bietan jende guztiarentzat zabalik. Euria egingo balu, Euskal Jaiko dantza jaialdia Errebal Plazan izango litzateke, eta erromeria eta Larraindantza Untzagako karpan. Asteburu

Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako txartelak erosi daitezke honezkero Klub Deportiboan

guztitan, ekimenak dauden bitartean, barra zabalduko dute, Matraka neska gazte taldearen eskutik.

Txartelak salgai 21era arte

Kantu-afarirako zein herri-bazkarirako tiket-ak atzo ipini ziren salgai Klub Deportiboan. Prezioa 10 eurokoa da ikasle eta langabetuentzat eta 12koa langile eta “dirua dutenentzat”. Jatordu bietako menua Biziminak elkarteak prestatuko du eta oraingoan “topera 300 lagun hartuko ditugu bertan”, antolatzaileen esanetan. Beraz, ez laga azken unerako eta erosi txartelak lehenbailehen

Euskal Jaiko programazioaren barruan dago baita gaur bertan Coliseoan eskainiko duten “Zumiriki” Oskar Alegriaren filma ere. 19:00etan eskainiko duten pelikula hori Veneziako Mostran estreinatu zen, Goya sarietarako sei hautagaitza izan zituen eta film onenaren saria eskuratu zuen Sevillako jaialdiko Olatu Berriak sailean. Coliseoko proiektzioa doanekoa izango da. Alegria egileak lau hilabete pasa zituen kamuflatuta eta bakarrik Nafarroako erreka baten ertzean eta han grabatu zuen Zumiriki pelikula.

“6.500 gerrako umeren izenak jaso ditugu eta kopurua gora doa”

JUAN RAMON GARAI • Intxorta 1937 kultur elkarteak



Intxorta 1937 kultur elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Gerra Zibilean erbestera ihes egin behar izan zuten umeren memoria berreskuratzeko lana egiten dihardu. Ekimena orain dela urte bi hasi zen eta harrezkero Eibarko 437 gerrako umeren izenak jaso ditu.

Zerrenda osatzeko asmoz, atzo zuzeneko arreta bulegoajarriko zuten Portaleko 3109 batzartokian (3. solairuan), eta hilaren 12an eta 19an berriz izango dira bertan, 18:00etatik 20:00etara. Umeen izen-abizenak panel batean jarrita egongo dira, herritarren laguntzarekin osatzeko, eta Intxorta 1937 elkarteak bizirik daudenen edo senideen testigantzak jasotzeko asmoa du.

Nola hasi zenuten gerrako umeen memoria berreskuratzeko proiektua?

Intxorta 1937 kultur elkarteak lotura zuzena du Intxortako erresistenteekin eta, Elgetako Udalarekin batera, omenaldi mordo bat egin ditugu bertan. Horrela, 2019an erabaki genuen bizirik zeuden Debagoieneko gerrako umei omenaldia egitea 2020an. Lanean hasi ginen eta pandemia iritsi zen. Etxetik jarraitu genuen lanean Eusko Jaurlaritzak jasota dituen milaka izenak aztertzen eta sorpresa hartu genuen Debagoieneko 65 ume zeudela ikustean.

Ezustekoa zergatik?

Zera pentsatu genuen: 65 ume Debagoienekoak badira, Gipuzkoan 500 gerrako ume baino gehiago egon beharko dira. Orduan, beste herri batzuetan gerrako umeen inguruan azterketarik egin omen zen ikusten hasi nintzen eta, Eibarren eta Lasarten izan ezik, beste inon ez da ikerketarik egin. Pena da, jende hori nagusia delako, poliki-poliki hiltzen doalako inongo

aitortzarik gabe... eta Gipuzkoako Foru Aldundiari lan hau egiteko proposamena egin genion.

Nolako lana izaten dihardu?


Intxorta 1937 elkarteaz gain, historiadoreak (Josu Chueca, adibidez) eta bestelako teknikariak daude ikerketan lan egiten. Hasierako helburua 5.000 umeren izenak jasotzea zen, baina 6.500 jaso ditugu dagoeneko eta kopurua gora doa.

Zailtasunak aurkitu dituzue bidean?

Liburuetan ez dira hainbeste ume azaltzen, ez zutelako guk egiten dugun lana egin. Frantziako, Kataluniako eta Espainiako artxibo guztiak arakatzen dihardugu. Adibidez, Salamancakoa aztertzen gabiltza orain eta ezustekoa hartu dugu.

Zergatik?

‘Kataluniako Paperak’ Kataluniara eraman zituzten, baina katalanek ez zituzten euskaldunen paperak eraman eta euskaldunek ez zituzten hona ekarri; beraz, Salamancan geratu ziren. Hara joan ginenean signatura batzuk eraman genituen, baina horietaz aparte milaka fitxa euskaldun aurkitu genituen eta harrিতuta geratu ginen. Astebetez egon ginen han lanean lau lagun, baina, hainbeste zegoenez jasotzeko, oraindik lanean jarraitzen dugu han. Itzela da oraindik, 85 urte eta gero, fitxa horiek guztiak Euskal Herrira ekarri ez izana. 60.000 euskaldun inguru joan ziren Kataluniara eta badakigu gutxienez euskaldunen 20.000 fitxa badaudela.



Beraz, gerrako umeen zerrenda handitzen doa etengabe?

Ba pentsa, martxoaren hasieran Eibarko 357 umeren izenak genituen identifikatuta eta hilabete geroago 437 zenbatu ditugu. Hori Eibarren bakarrik! Horrek esan nahi du Eibarren gerrako 500 ume baino gehiago egon zirela ziurrenik.

Eta kontuan izanda oraindik ez zenutela martxan jarri maiatzean zehar jarriko duzuen zuzeneko arreta zerbitzua...

Ego Ibarrek eta Badiharduguk 2021ean egindako ikerketak asko lagundu digu. Dokumentala, elkarrizketak, izenen zerrenda... jaso zituzten. Orduan 200 izen inguru atzeman zituzten eta dagoeneko bikoiztu egin dugu zerrenda. Beraz, lana egiteko dagoela ikusi dugu eta hortik irten da Soraluzen eta Eibarren zuzeneko arreta zerbitzua jartzeko ideia.

Zergatik bi herri horietan?

Soraluze eta Eibar artean oso lotura estua dagoelako, nahastuta daudelako. Soraluzen jaiotako batzuk eibartar bezala agertzen dira eta alderantziz. Adibidez, Errusian egondako Soraluzeko gerrako ume bat elkarrizketatu genuen eta, Ignacio Agirregoikoa Benito hegazkinlariari buruz berbetan, esaten zigun toki guztietan eibartarra izango balitz bezala agertzen zela, baina ez zela Eibarkoa, Soraluzekoa baizik. "Txikitan nirekin jolasten zuen Soraluzen!", esaten zigun.

Horregatik da garrantzitsua pertsona hauen zuzeneko testigantza jasotzea?

Arrasaten jasotako 300 izenetatik 30 lagun bizi badira, hiruko erregela erabiliz, Eibarren 500etik 40 lagun baino gehiago bizi behar dira, eta momentuz bi bakarrik elkarrizketatu ditugu. Gure helburua bizirik dauden gerrako umeak elkarrizketatzea da eta, bizirik ez badaude, haien senideak. Bizirik jarraitzen dutenak 85 urtetik gorakoak dira eta, beraz, ahalik eta azkarren egitea komeni da.

Nola jasotzen duzue informazio hori guztia?

Gerrako umeen izen-abizenak jasotzeaz gain, euren argazkiak biltzen ditugu (zaharrak edo berriak) eta elkarrizketak bideoan grabatzen ditugu. Elkarrizketak egiteko profesional biren laguntza jasotzen dugu eta dagoeneko 40 elkarrizketatik gora egin ditugu Gipuzkoa osoan.

Eibarko gerrako ume gehienak badakizue nora joan ziren, baina oraindik ez dakizue 33 ume non ibili ziren. Arreta zerbitzuak hori argitzen lagundu dezake?

Baietz espero dugu. Datu Babeserako Legearen ondorioz arazoak izaten ditugu zenbait informazio lortzeko orduan eta horrela, herritarrei zuzenean galdetuta, behar dugun informazio hori lortu dezakegu.

Zer egingo duzue jasotako guztiarekin?

Momentuz lan hau burutuko dugu eta, gero, zer egin erabakiko dugu. Baditugu ideia batzuk: erakusketa ibiltaria egitea herriz herri, zerrenda guztia jasotzen duen liburua argitaratzea, elkarrizketen bideoak Udalei ematea...



Erromeria Ixuan (1914).
Neska eta mutil gazteak
dantzan ari dira, trikitilarien
musikaren erritmora.
INDALECIO OJANGUREN

Aspaldi, Santa Kurutzeko erromeriak eskola inguruan eta Nebera baserrian egiten ziren. Marixabelek erromeriak Santa Kurutzen bertan, Ixuan eta Usartzan ezagutu ditu. Gaur egun, auzoko musikariak eta trikitilariak joaten dira.

Santa Kurutzeko jaietako musikariak

Marixabel Ugarteburu Arrillaga
(1955)



Eibarko Pagaegi kaleko "maternidadean" (amaetxean) jaio zen Marixabel 1955ean. Mandiola bailarako Mandiolaazpikoa baserrikoa da eta bertan bizi izan da beti. Santa Kurutzeko eskolan ikasi zuen umetan eta gero Eibarko Komertzio Eskolara joan zen. Bi seme ditu. Santa Kurutzeko ermitari oso lotuta dago. Egun, jaiak antolatzen laguntzen ibiltzen da, nahiz eta ardura gehiena bailarako gazteek duten. Santa Kurutzeko ermitaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Marixabel Ugartebururi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Erromerixiak lehen lehenago egitten ziran, aber, nik entzunda dakat nere amari ta, ez dakit zenbat korro ta egitten ziran han behian, Neberako... lehelengo eskolan, gero Neberako zerian be bai. Baiña guk euki dogu erromerixia Santa Kurutzen, bazkarixa bertan egitten genduenian, egitten genduen bertan, ta oso ambiente ona. Baiña, klaro, beti egualdixan arabera. Eta gero pentsau genduen ba hoixe, aurretik Usartza ta Usartza itxi zanian Ixuan. Ta hantxe bazkaldu eta gero erromerixia hantxe. Baiña erromerixia beti egon da, eh! Lo que pasa es que, egualdixakin ezin, hor ez dago aterperik, elizpia da txikixa ta. Kanbixau egin bihar izan genduen gauzak, peniaz, baiña ezin zan, egualdixakin...

110 milioi urteko bidaia Geolodiarekin

Informazio gehiago:



Espainiako Geologia Elkarteak Geolodia ekimena jarriko du martxan asteburuan eta hainbat ekintza egingo dituzte toki ezberdinetan. Debabarrenean, adibidez, Elgoibarko, Sorluzeko eta Eibarko (Azitain industria-gunean) arroka bolkanikoak, orain dela 110 milioi urtekoak, ezagutzeko ibilbide geologikoa egingo da domekan, 09:00etan euskaraz eta 10:00etan gazteleraz.

Jon Errandonea geologian doktorea da, EHU'n ikerlari bezala dabil lanean, bolkanismoan aditua da eta Geolodia ekimenaren bultzatzaileetako bat da hemen inguruan. “Geologiari publizitatea emateko ekintza da Geolodia”, esan digunez. Domekan, Ainhoa Alonso geologia irakaslearekin batera, 110 milioi urteko bidaia eskainiko digu, muturren aurrean ditugun arroken jatorria azalduz.

Geolodiaren ibilaldiak Elgoibar, Eibar eta Sorluzeko zeharkatuko ditu, eta parte-hartzaileak arroka bolkanikoen artean ibiliko dira. Bai, ondo irakurri duzue. “La Palmako uhartean gertatutakoak denon ahotan jarri ditu sumendiak eta, hemen arroka bolkanikoak bistan ditugula aprobetxatuz, orain dela 100 milioi urte inguru Euskokantauriar arroan gertatutako erupzioei eta bolkanismoari buruz jarduteko aprobetxatuko dugu”, Errandonearen berbetan.



Elgoibarren, Eibarren eta Soroluzen

Euskaraz egingo den ibilaldia 09:00etan hasiko da Elgoibarko hilerriaren inguruan. “Egitura igneo bat ikusi daiteke bertan, nahiko sakona, eta ganbara magmatikoa ikusiko dugu. Hau da, lurrazalean magma likidoa egoten den gordailua”, azaldu digu geologoak.

Elgoibartik Azitainera joango dira, Teknikerrera (Akondia eta Kalamua inguruan ere, besteak beste, arroka bolkanikoak ikusi daitezke). “Sakonera txikitzen joango gara eta, bertan, aipatutako ganbaratik labak lurrazalera bidean lekua nola irekitzen zuen ikusi ahal izango dugu, dike batzuen bitartez”, dio doktoreak, “eta toki berean erupzio oso leherkorrak egon zirela adierazten duten metakin batzuk ere badaude”.

Ibilbidearekin amaitzeko Soroluzera joango dira. “Lurrazalera (sasoi horretan ur azpian) atera ziren laba batzuk ikusiko ditugu bidegorrian”, diosku Errandoneak. “Beraz, sakonera handitik txikira joango gara, arroka bolkanikoak eta egitura ezberdinak ikusiz”.

Geraleku bakoitzean geologo biek azalpenak emango dituzte eta, bistan dagoena azaltzeaz gain, testuingurua ere esplikatu dute. “Horrela, jendeak muturren aurrean dituen arrokkak beste modu batean begiratzea espero dugu. Mendira goazenean landareak eta abar ikusteri ohituak gaude, baina arrokek ere badute informazioa”, Errandonearen berbetan.

Euskokantauriar arroa

Eibar, edo ingurune hau behintzat, “ingurune tropikala” zen orain dela



Elgoibarko, Soroluzeko eta Eibarko arroka bolkanikoak ezagutzeko ibilbide geologikoa egingo da domekan. GEOLODIA

>>> "Sakonera handitik txikira joango gara, arroka bolkanikoak eta egitura ezberdinak ikusiz", azaldu digu Jon Errandonea geologoak

100 milioi urte, Errandoneak esan digunez. “Irla edo kontinente txiki batzuk zeuden eta tartean itsasoa, sakonera txikikoa toki batzuetan, baina segidan sakonera handira sartzen zena”, dio geologian doktoreak.

Iberiako eta Europako plakak banatuta zeuden eta, apurka-apurka urrunduta egin zirenez, bien artean zegoen itsasoaren azpiko kontinente-lurrazala gero eta gehiago mehetu zen. “Nahiz eta lurrazal ozeanikoa ageri arte hemen ez zen



Jon Errandonea geologoa da Geolodia ekimenaren bultzatzaileetako bat. EKHIBELAR

lurrazala guztiz zabaldu, magmatismo bat eman zen eta labak atera ziren”, azaldu digu labur.

Hori guztia ez zen egun bate-tik bestera gertatu. “Bolkanismoa 110 milioi urtetik 80 milioi urtera gertatu zen gutxi gorabehera. Harezkerok, hemen inguruan ez da

horrelako aktibitatearik gertatu. Orain toki lasaian bizi gara zentzu horretan”, zehazten du Errandoneak.

Lasaitasun horrekin, bolkanismoaren lekuko izan ziren arrokkak ikusi eta ukitzeko aukera dugu. “Arroka bolkaniko ezberdinak

daude. Batzuek behatz edo lobulu itxura dute, egitura biribilduak izaten dira, ilunagoak normalean, mota zuriak dituzte... Nahiko deigarriak dira”, argitu digu geologoak. Beraz, hurrengoan zabaldu ondo begiak, 110 milioi urteko bi-daia egin dezakezue eta.

Astindu ohiturak!!



Errenta aitortpena?

Aurten ere, duda barik,

EUSKARAZ!!!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
- **Mekanizatua egiteko**
 - ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
 - aitortpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula
- **Internet bidez** egitean, jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.





Nelsonek 'Lusai' taberna zabaldu berri du Errebal Plazan. EKHI BELAR

Mundu osoko osagaiak koktel-ontzian

Nelson Da Silva Venezuelan jaio zen, baina gurasoak portugaldarrek dituen, sei bat urterekin Portugalera joan zen bizitzera, Castelo Brancora, unibertsitateko ikasketak amaitu arte. “Marketin ikasketak egin nituen, marketinean eta lehiakortasunean espezializatuz”, zehazten digu. Tituluarekin besapean, Venezuelara itzuli zen osabaren etxera eta lau urtez egon zen han. “Txikitan Venezuelan gazteleraz egiten ikasi nuen, baina etxean portugaldarrez egiten nuen eta

Venezuelan portugaldarren kolonia handia dagoenez, portugaldarrez moldatzen nintzen egunerokoan”, diosku bitxitasun bezala.

Toki batetik bestera

Ikusiko duzuen, Nelson ez da geldirik geratzen den horietakoa. Ez munduko zenbait tokitan bizi izan delako bakarrik, baizik eta profesionalki ere arlo ezberdinetan jardun duelako. “Venezuelan funts-ondasunen inguruan lan egiten zuen enpresa batean hasi nintzen, arrisku handiko ondasun eta lursailak

erosiz eta salduz, baina hango egoera okertu zen eta Kolonbiara joan nintzen”, azaldu digu. Kolonbian medikuntza-produktuak saltzen hasi zen, baina ostalaritza indarra hartzen hasi zen bere bizitzan eta gastronomiaren bidea hartu zuen poliki-poliki.

Ostalaritzak zoratuta

Kolonbian bizi ondoren, Ekuadorren egon zen urtebetez. Handik Txilera joan zen eta, azkenik, Perura. “Komunikazio bisualerako ekipoak saltzen zituen enpresa batean egin nuen lan, baina jatetxe bat zabaldu behar zuen lagun batek hots egin zidan berarekin lan egin nahi nuen galdetzeko eta baietz erantzun nion”, diosku. Horrela, ostalaritzarekiko zaletasuna lanbide bihurtu zuen, Portugalen aitxixaren tabernan ikasitakoa praktikara eramanez.

Lan egiteaz gain, ostalaritzaren inguruan gehiago ikasten ibili zen eta, besteak beste, koktelgintza ikastaroa egin zuen. “Aurretik ere egin izan nuen ikastaroren bat, baina zaletasun kontuagatik, ez lan egiteko asmoz. Orduan, Peruko jatetxe horretan lanean hasi nintzenez, ostalaritzaren munduan guztiz murgildu nintzen”, dio Nelsonek. “Marketina ikasi nuen, baina ostalaritzak zorutzen nau”, aitortzen du.

Eibarrera, bizitza egonkortu asmoz

Perun bederatzi hilabetez egon ondoren, Euskal Herria izan zen Nelsonen hurrengo garelakua, eta azkena orain arte. “Emaztea Ekuadorren ezagutu nuen, baina Venezuelakoa da eta familia Euskal Herrikoa du. Ekuadorren geundenean semea izan genuen eta urtea bete zuenean emazteari esan nion Portugalera joatea nahi nuela, bizitza egonkortzeko asmoz, baina bere familia Eibarren bizi zenez, hona etortzea erabaki genuen”, diosku.

Nelsonek ez zekien Eibar non zegoen, ezta hemen euskaraz egiten zenik ere, baina lau urtetan bikain moldatu da hemengo bizimodura, bere bizitzako negozio kuttunena jarri du martxan eta euskaraz moldatzen da.

Egokitzapen ezin hobea

Nelsonek aitortzen du beldurtuta etorri zela Eibarrera, “baina berehala konturatu nintzen

eibartarrak oso atseginak direla”. Heldu eta hilabetera, ateak ireki berri zituen Baratze tabernan lanean hasi zen eta Unai Altuna ugazabarekin asko ikasi zuen. Ez bakarrik ostalaritza kontuez, baita euskaraz egiten ere. Bestetik, Nelsonek ere bere jakintza eskaini zuen. “Perun ikasitakoa hemen praktikan jartzen saiatu nintzen, bai arlo gastronomikoan, bai negozio-ereduetan”, diosku, eta Baratze tabernarekin batera hazi egin zen.

Bide berria Errebal Plazan

Baratzen lau urte egin ondoren, bakarkako bidea hartu du orain Nelsonek. Eguaztenean Errebal Plazan dagoen ‘Lusai’ taberna zabaldu zuen, Portugalgo izaera ardatz, Japonia, Hawaii eta Hego Amerikako zaporeak 0 km-ko produktuekin uztartzen dituen establezimendua. “Plazako baserritarren eta inguruko denden produktuak erabiliko ditugu”, diosku. “Eguneroko martxa albo batera laga eta lasai egoteko tokia izatea nahi dugu. Jaki ezberdinak eskainiko ditugu (pokea, zebitxea...), baina baita patata-tortila ere. Goizaldean brunch-ak eskainiko ditugu eta arratsaldean ‘pikoteoa’. Horrez gain, koktelak, zukuak... emango ditugu edateko”, gehitzen du.

“ ”

É melhor dar do
que receber

“Hobe da ematea
jasotzea baino”

Euskara gero eta biziago Lanbide Heziketan eta enpresetan

Eibarko datuek diote lanean euskara gehiago erabiltzen dela kalean baino, euskara-planak dituzten enpresa asko dago eta administrazioan lan egiteko euskara beharrezkoa da. Dena onurak dira, baina oraindik ere gazte askok erdara aukeratzen dute Lanbide Heziketako ikastetako egiterakoan. Idoia Uruñuela, Pablo Lopez eta Amets Aierdik euskararen aldeko apostua egin dute eta euren testigantzak jaso nahi izan ditugu.




B atxilergoan eta DBHn gehiengoak euskaraz ikasten du, baina Lanbide Heziketan holakorik ez da gertatzen. Hori dela eta, 2018an elkarlanean hasi ziren Armeria Eskola, UNI Eibar-Ermua, Eibarko Udala eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak, euskararen alde lan egiteko bideak zehazteko eta D ereduaren aldeko kanpainak bultzatzeko.

UNI Eibar-Ermuan eta Armeria Eskolan Goi eta Erdi mailako zikloak gazteleraz eta euskaraz eskaintzen dituzte. Gero eta ikasle gehiagok euskaraz ikasteko bidea hartzen du, baina oraindik ere bidea egiteko dagoela uste dute ikastetxeetako arduradunek. Ziur daude lan munduan gero eta funtsezkoagoa izango dela euskaraz moldatzea, espezialitatea edozein izanda ere. "Aukera gehiago izango dute lana topatzeko D ereduko ikasleek besteek baino, egungo ia enpresa denek eskatzen baitute euskara jakitea", azaldu dute.

Zer diote ikasleek

Asko dira D ereduari ikasteagatik ikasleak izango dituen onurak. Esaterako, euskaraz ikasteak jarraipen naturala ematen dio ikasleari hizkuntzari dagokionean eta, gainera, ikaslearen formakuntzari gehigarri bat dakarkio lan merkatuarengana. Idoia Uruñuela eibartarrak Armeria Eskolan dihardu Goi Mailako Mekanika



Pablo Lopez UNI Eibar-Ermuko ikaslea da, eta Amets Aierdik eta Idoia Uruñuelak Armeria Eskolan dihardute. Hirurak Goi Mailako Zikloetan daude eta euskaraz ikasten dute. ANAIZPURUA

Industrialak zikloa ikasten. "Bi aldiz pentsatu gabe eman nuen izena euskarazko taldean. Betidanik ikasi dut euskaraz; Lanbide Heziketara jauzia eman aurretik Haur Hezkuntza ikasi nuen. Beraz, niretzako momentu honetan askoz zailagoa da erdaraz ikastea". Idoiak uste du lan munduan aukera gehiago dagoela euskaraz ikasten badute, "eta hor kriston lana egiten ari dira ikastetxean; esate baterako, tailerretan euskara geroz eta gehiago sartzen ari dira eta hainbat hitz tekniko euskaratzen dihardute". Aurtan sartu da Idoia Armeria Eskolan eta Lanbide Heziketa euskaraz egiteari abantailak baino ez dizkio ikusten. *Plus* bat dela uste du Idoiak: "Konpetentzia asko dago, eta lan munduan sartzeko orduan mesedegarria da". Hortik haratago, "niretzako euskara oso garrantzitsua da. Aurtan Korrikan lekukoa eraman dut Armeria Eskolaren izenean eta ohorea izan da. Ez dut inoiz ahaztuko egun horretan bizi izan nuen guztia", esan digu Idoiak.

Euskara eta enpresa mundua

Amets Aierdi elgoibartarrarentzat bigarren urtea da Armeria Eskolan. Bera ere Goi Mailako Ziklo batean ari da ikasten, Automatizazioa eta Robotika Industrialak delakoan, eta orain lantokiko prestakuntza modulua ari da egiten enpresa batean. Ametsek azaldu digunez, "praktikak tailer batean egiten ditut eta langile guztiok, bat edo bi kenduta, denek euskaraz egiten dugu. Enpresa batzuetan asko hitz egiten da euskaraz eta horretan zerikusi handia dauka non kokatua dagoen: ez da berdina Eibarren edo Azkoitin egotea". Eskolako material gehiena erdaraz dagoela esan digu Ametsek eta, zentzu horretan, "azken urteetan ikastetxean lan

"Lan munduan aukera gehiago dago euskaraz ikasten baduzu, *plus* bat da" (Idoia Uruñuela)

Bideoa
Youtuben
ikusgai:





"Azken urteetan ikastetxean lan handia egiten dihardute material guztia euskaratzeko, baina oraindik asko dago egiteko" (Amets Aierdi)



"Enpresa munduan gero eta gehiago hitz egiten da euskaraz eta hori ere kontuan hartu beharreko gauza da" (Pablo Lopez)

handia egiten ari dira hori guztia euskaratzeko. Hala ere, oraindik asko dago egiteko", dio.

Pablo Lopez UNI Eibar-Ermuako ikaslea da. Iaz "Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena" amaitu zuen eta aurtun "Web Aplikazioen Garapena" egiten dago dualean. "Azpeitiko enpresa batean nago lanean eta, dakizuen moduan, Azpeitian asko hitz egiten da euskaraz. Enpresan den-dena euskaraz egiten dugu. Durangokoa izanda, batzuetan euren euskara ulertzea kostatzen zait, baina ohitu egin naizela esan daiteke. Oso gustura nago". Bere etxean ez dute euskaraz berba egiten, baina txikitatik dena euskaraz ikasi duenez oso ondo moldatzen da Pablo. Bere ustez, "zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe. Euskarak lan munduan atea zabaltzen dizkigu eta, gure hizkuntza izanda, guk ez badugu egiten zeinek egingo du?".

Eibar BHI-ko orientatzailearen ikuspegia

DBH eta Batxilergoko ikastetxeek ere asko daukate esateko gai honen inguruan. Eskarne Aranoa Eibar BHI-ko orientatzailea da eta bere lana da ikasleei tresnak eskaintzea, ahalik eta erabakirik onena hartzen laguntzeko. Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloen kasuan (aukera dagoenean), eta unibertsitateko ikasketen kasuan, ikasleen gehiengoak D ereduan jarraitzea erabakitzen duen arren, Erdi Mailako Zikloa ikasteko A eredia aukeratzen duten ikasleak badaudela dio Eskarne. "Guk ikasketak D ereduan jarraitzeke prestatzen ditugu, eta horretarako animatzen ditugu, baina ikasle gutxi batzuek pentsatzen dute gazteleraz errazago egingo zaiela, nahiz eta gero, agian, ez den horrela izango", azaldu du.

Eibarren eta inguruan Lanbide Heziketan euskaraz ikasteko dauden aukerei buruz galdetzerakoan, hau erantzun digu Eskarne: "Ez da urte asko Lanbide Heziketa D ereduan ikasteko aukera sortu zela. Ikastetxe eta irakasleek ahalegin handia egin dutelakoan nago, eta oso ondo onartua izan da. Lantegietan ere euskarak gero eta presentzia handiagoa dauka. Baina egia da oraindik badagoela zer egin. Adibidez, oraindik ere titulazio guztiak ez dira euskaraz eskaintzen. Eta niretzat hutsunerik nabarmenena Oinarrizko Lanbide Heziketarena da. Ez dago euskarazko eskaintzarik gure inguruan; hurbilen Oñatin ezarriko dute datorren kurtsuan titulazio bat. Erakundeek bide honetatik jarraitzea nahiko genuke. Guk ikasleak euskaraz ikasteko eta bizitzeko prestatzen ditugun arren, eta ikasleek ere horretarako ahalegina egiten duten arren, Oinarrizko Lanbide Heziketa gazteleraz egin eta gero, eten bat dago, eta zaila izango da ikasle horiek D ereduan ikasketak jarraitzea".



ENRIKE SOSOLA

“Umeak negarra eta artoak belarra”

Artoa ereiteko garaia hemen da. Amalurra gozatu, ongarritu eta hazia bota beharko dugu laister. Eta gero jorratu, belar txarrak kendu, landarea gizen etorri dadin. Lan nekeza, erneagarria benetan, aspergarria oso. Kexatu egiten ginen txikitari, eta etxeko buruzagiak esaera honekin erantzun aginte-makila eskuan:

“Umeak negarra eta artoak belarra”. Bi mezu bidaltzen zigun esaera bakarrean: umekeria salatu batetik; eta, bestetik, artoa ondo eta sano etortzeko belarra behar duela inguruan azaltzen zigun, ume jaioberriak moduan, bere negar-orru ozenaz.

Tamalez arto gutxi ereiten da egun Euskal Herrian, oinarrizko jaki izan arrenazienda zein hankabikoontzako. Orain arte, gehiena Frantzia eta Ukrainatik ekarri izan dugu. Orain arte esan beharko da, zeren gerrak gauzak alda ditzakela dirudi; izan ere, jakin behar da munduko arto-ekoizle handiena AEB dela eta osotasunean transgenikoa. Horregatik atek itxita izan ditu Europan, bere eragin kaltegarriagatik eta bertako nekazarion kontzientziario-lanari esker.

Ukrainako gerrak arto eta, orohar, zerealen eskasia ekarri duela diote. Ondorioz, Europan Batasuna prest agertu omen da AEBko arto transgenikoari atek irekitzeko, “premia larriak” bultzatuta. Hortaz, itxura batean, Ipar Ameriketako agroindustriak bere aspaldiko helburua beteko du, hau da, bere hazi garesti eta zalantzarria europarroi saltzea.

Umetzat hartzen gaituzte etxeko buruzagi berriek. “Putin gaizkile-NATO ongile” esaerarekin datozkigu oraingoan. Militarismoa, belizismoa eta beldurra zabaltzen saiatzen ari dira. Eta giro horren uztza lez hona bi ale gertuko:

- Ukrainako familia zapalduak jasotzeko jende ugari eman du izena, bikain; aldiz, Saharako haurrak udan hartzeko soilik bi familia prest agertu dira Eibarren, bi bakarrik, bai.

- Espainiako epaileek Eibarko udaltzainak militarizatze urratsa agindu dute langileak gerrian pistola eramatera behartuz eta disuasioaren beharra argudiatuz, disuasioa, bai.

Nik berriz diot: “Artoak belarra eta buruzagiak gerrara”. Ez NATO, Ez Putin.

"Ipar Ameriketako agroindustriak bere aspaldiko helburua beteko du, hau da, bere hazi garesti eta zalantzarria europarroi saltzea"



Domekan betetzeko zain. RAMONBEITIA

Berbalagunek Anton Abadia jauregia bisitatu dute

Joan den zapatuan, eta eguraldia lagun, Hendaiako Anton Abadia jauregia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen hogei berbalagunek osatutako taldeak. Eguerdie partean Eibartik autobusez abiatuta bisita interesgarria egiteko aukera izan zuten eibartarrek. Nahia gidariaren eskutik, jauregiaren gelak (liburutegiak, astronomiaren behatokia, logelak, egongelak...) eta bazterrak miatu zituzten. Behin barrukaldea ikusi ondoren, kanpoaldearekin gozatu zuten; belardi eta lorategi ederrak inguratzen dute jauregia, eta itsasoa ere bertan da, jauregiaren oinetan.

Aurten bete dira 125 urte Anton Abadia hil zela. Noble-familia batean jaioa, aita zuberotarra zuen eta ama irlandarra. Bere ikasbide nagusia zientzia izan zen: mineralogia, biologia, fisika eta, batez ere, astronomia ikasi zituen. Hamabi urte egin zituen Etiopian herrial-



de hartako hizkuntza, etnologia eta kartografia lantzen eta, handik bueltan, aitaren aldetik zetorkion euskaltzaletasunak bultzatuta, euskarari buruzko ikerketak

eta lanak egiten hasi zen. Euskal Herriko historiaren beste pasarte interesgarri bat ezagutu ondoren, pozarren bueltatu ziren Eibarrera berbalagunak.

Gantxilla-apaingarriak egiteko tailerrak ...eta kitto!-n

Aurten maiatzaren 21ean ospatuko dugun Tantan ezagutza ekitaldirako, tailer berezia antolatu du ...eta kitto!-k: gantxillak egiteko tailerra, hain zuzen. Fimoa erabilia leporako edo pin moduan erabiltzeko gantxilla txikiak egingo dira bi saiotan. Lehenengoa 6 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara egingo dute

tailerra txikienek, gurasoek lagunduta; bigarrena, berriz, helduentzat izango da (12 urtetik gorakoentzat) eta 18:15etik 19:30era egingo da. Saio biak...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan egingo dira (Urkizu 11 solairuartea) eta izen-ematea doan da. 943200918 telefonora deituta edo elkartea@etakitto.eus helbidera mezua bidalitz.



Domekan UCI mailako IV. Eibarko Hiria Sari Nagusia jokatu da gurean

Eibarko Txirrindulari Elkarteak prestatutako denboraldiko egitarauaren barruko laugarren proba jokatu da etzi, goizeko 10:00etan Untzagan hasi eta eguerdiko 13:00a baino lehen amaituko dena. Aurtengoa proba horretako laugarren edizioa izango da eta bertan parte hartuko dute hainbat herrialdeetako 19 taldek, tartean Laboral Kutxa - Fundacion Euskadi, Sopela Women's eta Bizkaia Durango euskaldunak. Estatuko beste zortzi talderekin batera, Kolonia, Alemania, Frantzia, Austria, Herbehereak eta Arabiar Emiratoetatik etorritako seikoteak izango dira irteeran, guztira 114 txirrindulari. Emakumezkoen UCI mailako lasterketak 112 kilometrotik gora izango du, Itziar, Meagas eta San Miguel gainak tar-teko. Parte-hartzeari dagokionez, jakina, munduko txirrindulari one-

nek jardungo dute, nahiz eta Movistar-eko Van Vleuten ezin izango den Eibarren egon, orain dela egun batzuk eskumuturra hautsi baitzuen. Katrine Aalerud eta Paula Patiño txirrindulariak ahaleginduko dira bere tokia hartzen talde horretan, eta hor izango dira Ane Santesteban euskalduna Team Bike Exchange-Jayco taldea ordezkatzeko eta Mavi Garcia Espainiako txapelduna ere.

Domekan 09:00etan hasiko dute taldeen aurkezpena egiten Untzagan eta handik ordubetera, 10:00etan, emango zaio hasiera lasterketari. Irabazlea 12:50 bueltan helmugaratuko dela aurreikusten dute antolatzaileek, oraingoan dagoeneko herri barruan, Toribio Etxebarria kalean. Lasterketa streaming bidez (www.clubiciclistaeibarres.org) jarraitu ahal izango da eta, Valenciaga Memorialarekin egin zuten bezala,



lazio podiuma osatu zuen hirukotea.

helikopteroa kontratatu dute azken kilometroetako irudiak eman ahal izateko. Hori bai, benetan zaila izango dute iazko podiuma hobetzea: orduko hartan munduko hiru onenek -gaur egun erretiratuta dagoen Anna Van der Breggek, min hartuta dagoen Annemiek Van Vleutenek eta Elisa Longo Borghinik- osatu baitzuten podium ahaztezina.

Deba Bailarako zazpigarren etapa osatu zuten Deporrekoe

Aurreko zapatuan, Arabako Elgea herrixkatik abiatuta, Deba Bailarako ibilbideko zazpigarren etapa

egin zuten Eibarko Klub Deportiboko mendi-taldekoek. Arantzazun amaitu zen etapa horretan Au-



Deba Bailarako zortzigarren etapa udazkenean egingo dute Deporrekoe.

mategi, Mirubixkar, Burgamendi, Sekillaga eta Artia-Gaboño mendi-gainak egin zituzten, guztiak mila metrotik gorakoak, bost ordu inguruko txangoan. 1.192 metroko Aumategi behin eginda, haize errotan arrastotik joan ziren gainer-gain, gero Arantzazu erreka jaitsi eta bertatik, ordu erdiko bidean, Arantzazuko plazara iristeko. Araotzeko baso eta han-hemenkako baserriak atzean lagata, Sindika jabetxearen inguruan bildu ziren hogetaka mendizaleak, kanpoa zein barrua betez. Hurrengo etapa, zortzigarrena, udazkenean egingo dute, azaroan 26an, Arantzazu, Urbia eta Brinkola lotuz, 1.296ko Enaitz mendia gainditu ondoren.

Zaletuak ilusionatuta Eibar-Valladolidekin

Domeka arratsaldean, 16:00etatik aurrera, Ipuruak hartuko duen Eibar eta Valladoliden arteko partidua guztiz erabakigarria izan daiteke Liga amaierari begira. Lau jardunaldiren faltan, Garitanoren mutilek bost puntuko tartea zabaldu dute Gaztela-Leongo taldearekiko eta, garaipen batekin, zortzi puntuko alde hori ia gaindiezinezkoa izango litzateke Valladolid-entzat, baka-riek bederatziz geratuko lirakeelako jokoan. Zaletuen eta herritarren artean ilusio berezia piztu du gaur egun taldeak bizi duen egoerak eta domekarako sarrerak di-da batean saldu ziren; Ipurua, beraz, lepo beteko da garrantzi berezia hartu duen neurketan. Sailkapenean Eibarrek lider jarraitzen du, puntu bakarrera jarraitzen dio Almeriak eta bostera



dago Valladolid, bi lehen postu horiek lortzeko borrokan. Hurrengo asteburuan eibartarrek Leganesen jokatu dute, gero Tenerife Ipuruan hartzeko eta, azken partiduan, Madrilera joko dute berriz, Alcorcon sailkapeneko azkena bisitatzeko.

Zaila Iberdrola Ligari eustea

Bestelako egoeran da 1. Mailan jokatzen duen Eibar FT-ren emaku-

mezkoen taldea, kategoria galtzeko zorian. Aurreko domekan berdinketa besterik ez zuen lortu Unben Villarrealen aurka eta horrek, liga amaitzeko bi jardunaldi falta direnean, Atletico de Madrid-i Espainiako hiriburuan irabaztera (domekan, 12:00etan) eta gero Valentzia Unben gutxienez bi goleko aldearekin garaitzera derrigortzen du Jordi Ferronen taldea. Lan zaila benetan.



Foball-zaletuaren Kopa torneo hasiko da asteburuan

Behin Liga amaituta, zapatu eta domeka honetan jokatuko dira Unben Kopa torneoari hasiera emango dioten lehen norgehiagokak. Zapatuko jardunaldian, Feredu Bar EzDok-Bali Center Sport partidua jokatuko da 09:00etan eta Adahi Eraieder-Ipur Sagardotegia handik ordu eta erdira, 10:30ean. Domekakoan, eta ordutegi berean, honakoak jokatuko dira hurrenez hurren: JMR Tanke-mans - Chic eta, ondoren, Bar Txoko -America Sport.



Escuderia Eibarkoek laugarren egin zuten Lea Artibaiko rallyan

Iñaki Narbaizak eta Unai Etxeberriak osatutako tandemak laugarren postuan amaitu zuen aurreko asteburuan jokatutako Lea Artibaiko rallyan. Barixakuan eta zapatuan jokatutako proban 56 autok hartu

zuten parte, 102 kilometroko ibilbidea osatuz erlojuaren aurkako modalitatean. Probaren 10. edizioa izan zen jokoan eta eibartarrak, sailkapen nagusian laugarrenak izateaz gain, 2. sailkatu ziren euren mailan.

AITOR ECHEBARRIA • Musikaria



Aitor Echebarria Tas-Tasen jotzeko irrikitan dago. AITORPENAK

“Guretzat ametsa da Eibarren kontzertua eskaintzea”

Jatorri eibartarra duen Aitor Echebarria kataluniarraren ‘Aitorpenak’ musika taldeak kontzertua eskainiko du hurrengo barixakuan, 22:00etan, Tas Tas tabernan. Hirukoteak (power trio) solid popa ekarriko du Eibarrera, herriarekin lotura estua duen ‘Denbora ez da inoiz gelditzen’ abestia Euskal Herrian aurkezteko.

Gogotsu zure Eibar maitatuan kontzertua eskaintzeko?

Ametsa da guretzat. Hiru aldiz jo dut Eibarren, baina bakarlari moduan. Beraz, hau izango da talde moduan bertan egongo garen lehen aldia.

‘Power trio-a’ zaretela diozue, baina zer esan nahi du horrek?

Herriari ‘solid pop-a’ eskaintzeko modu bat da. Gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta bateria bat, hori da ‘power trio-a’.

Nolako lana da ‘Denbora ez da inoiz gelditzen’ abestia?

Nerabezaroan ezagutu nuen Eibarri buruz berba egiten duen abestia da. Tabernak, industria, familia... hori gutzia oroitzeko balio du. Ez dakit sasoi hartako Eibar gaur egungoa baino hobeagoa edo txarragoa den, baina malenkoniaz begiratzen diot iraganari. Malenkoniaz, baina ez tristuraz, maitasunez baizik. Gai intimista da.

Gaiaz gain, abestiaren produkzioak ere Eibarrekin lotura du, ezta?

Eibarri buruz berba egiten dudanez, abestia Eibarren grabatzea proposa zela ikusten nuen. Horrela, Errebal inguruan dagoen Kitarshokak estudioan grabatu nuen, Aitor Sologaistoarekin. Ekanean beste bi abesti berri argitaratuko ditugunez, guretzat berebizikoa zen Eibarren single hau aurkeztea.

Nolako kontzertua eskainiko duzu Tas Tasen?

Ezin ukatu kontzertua Errebal Plazan eskaintzea gustatuko litzaida-keela, baina TasTasen beti eman dizkidate erraztasunak eta pandemia aurretik hil zen Xabi gogoratu nahiko nuke. Gainera, azken urteotan gaizki pasatu duten lokalei bultzada eman behar zaie eta tabernetara itzuli behar gara. Ikusi beharko dugu tabernaren akustika nolakoa den, baina tira, gu gure-ra. Gure diskografiako abesti arrakastatsuenak joko ditugu eta pop bikaineko ordubeteko kontzertua eskaintzen saiatuko gara.

Nolako bidea egin duzue orain arte?

‘Aitorpenak’ proiektuak hamar urte bete ditu. Hasieran sei urtez ibili nintzen bakarka, eta azken lau urteotan hirukotean gabiltza. Musika ez da gure lanbidea, baina denbora asko eskaintzen diogu pasio honi.



Gaur 19:00etan zabalduko dituzte Argazkilaritza Maiatzean-eko erakusketak

Gaur 19:00etan inauguratuko dituzte Argazkilaritza Maiatzean-eko erakusketak Klub Deportiboko argazki taldekoek. Portalean Elena Plaza, Eva Franco, Koldo Badillo eta Oskar Mansoren lanak ikusteko aukera egongo da (martitzenetik domekara, 18:30/20:30) eta Topalekuan Juan Antonio Palacios eibartarrarenak (astelehenetik domekara, 19:00/21:00). Hilaren 29ra arte egongo dira zabalik. Untzaga jubilatutxean, bestalde, XLVIII. Nazioarteko Gipuzkoa Saria ikus daiteke, astelehenetik domekara (20:00/21:00). Eta hilaren 31ra arte, "Argizaiola 2021" hartuko du Depor tabernak eta Portalea tabernan Eibarko Klub Deportiboko argazkilarien lanak egongo dira ikusgai.



Gazte antzerki-dantza ikuskizuna bihar Errebalen

Hika Teatro eta Oinkari Dantza Taldearen eskutik "Gazte" kaleko antzerki-dantza ikuskizuna hartuko du Errebal Plazak, bihar 19:00etan. Agurtzane Intxaurreagak zuzendutako lanak Eneko Gilen koreografiak dauka eta dohainik eskainiko dute, Debabarreneko Eskola Antzerki Erakusketaren baitan.

Hasi dira Sanjuanetako eta Amañako danborradak prestatzen

San Juan jaietan egingo diren danborradetarako entseguak hasi dira. Jaiak ailegatu bitartean, astero egingo dira, Bittor Sarasketa kaleko 7. zenbakian (Beistegi eraikinean). Umeen entsegua 19:00etan hasiko da eta nagusiena 20:00etan. Eta Amañako Jaietan egingo den danborradarako entseguak atzo hasi ziren. Astero egingo dira, eguenetan: 19:00etan umeendako saioa izango da eta 20:00etan helduena.

Bi film, GNAT Zinemaren eskutik



Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren eskutik, II. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldia egingo da. Eibarren bi film proiektatuko dira: maiatzaren 12an "Lo que el pulpo me enseñó" eta maiatzaren 19an "The magnitude of all things". Bi proiektzioak Coliseo antzokian eskainiko dira, 19:00etan, eta sarrerak doakoak izango dira.

"Altsasu" antzezlan Coliseon

"Altsasu" kasua oinarri hartuta, herri horretan 2016ko urriaren 15ean izandako gertaerei buruz sortutako fikzioa aurkeztuko dute eguenean (euskaraz) eta barixakuan (gaztelerez) La Dramática Errante taldekoek, 20:00etan Coliseo antzokian. María Goiricelayak zuzenduta, Egoitz Sánchez, Ane Pikaza, Nagore González eta Aitor Borobia antzezleak arituko dira. Sarrerak 10 euro balio du.



Zuzeneko musikarekin girotutako marrazketa saioa Biharrian-en

Maite Arriaga sormen-artistiko tailerrak antolatuta, marrazketari buruzko "Jam Session" saioa egingo da maiatzaren 14an Ubitxa kalean dagoen Biharrian sormen espazioan, 19:30etik 21:30era. Marrazteko materiala norberak eraman beharko du eta zuzeneko musika, pintxoak, edariak... egongo dira. Sarrerak 10 euro balio du.



LABIRINTOA

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

2	8		7		
	4	8	6		
	7 3				2 5
6		1			
	4				1
			8		6
1 3				2 5	
		5	2	9	
		5		3	1

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		1	6	4			
		5		7			
	7						2
	4			7	6		5
	1	9			2	7	
8	7	9					3
6							1
				6	7		
				9	5	3	

S
U
D
O
K
U

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

Maiatzak 6/12

BARIXAKUA 6

ZINE-FORUMA

18:30 "Mustang" (Deniz Gamze Ergüven).
Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkorro. Portalea (areto nagusia).

EUSKAL JAIA

19:00 "Zumiriki" (Oskar Alegria). Coliseo.

DIA DAS LETRAS

GALEGAS

19:00 Jai batzordearen taberna zabaltzea. Gaita-poteo, Os Galaicos-ekin. Umeendako pailazoak (Lekim Animazioak).

22:00/00:00 Dantzaldia, Solara orkestrarekin.

00:00 Queimada.

00:30/01:30 Dantzaldia, Solara orkestrarekin. Urkizu.

ZAPATUA 7

KONPONFEST

10:00/14:00 Auzolana. Bazkari musikatua. Gaztetxea.

JOLASAK

11:00/13:00 Haurrendako jolasak, Eibar-Ermua Gazteen Gurutze Gorriaren eskutik. Torrekua (anbulatorioa izandakoa).

DIA DAS LETRAS

GALEGAS

11:30 Umeendako "chaves" jaurtiketa.

12:00 Herri kirolak.

13:00 Igel-toka txapelketa.

16:00 Helduendako "chaves" jaurtiketa.

18:30 Galiziako musika eta dantzak, Os Galaicos eta Usartz Txistulari Taldearekin.

22:30/00:30 Dantzaldia, Ritmo Joven orkestrarekin.

00:30 Queimada. Urkizu.

DANTZA

19:00 "Gazte" (Hika Teatro-Oinkari Dantza Taldea) kaleko antzerki-dantza. Errebal Plaza.

DOMEKA 8

SANTA KURUTZEKO JAIAK

09:45 Santa Kurutzerako igoera, Urkizuko iturritik (izen-ematea bertan, 09:30ean).

10:30 Kanpaiak.

11:00 Meza. Ondoren, hamaiketako, trikitilariak girotuta.

12:00 Haurrendako jolasak.

13:00 Herri kirolak.

14:30 Bazkaria, Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria, Oier Balzola eta Unai Andonegik alaitu. Santa Kurutz.

TXIRRINDULARITZA

10:00 IV. Eibarko Hiria Sari Nagusia. Untzaga (amaiera 13:00ean, T. Etxebarria).

DIA DAS LETRAS

GALEGAS

11:45 Kalejira, Untzagatik Urkizura, Os Galaicos eta Eibarko Trikitilariekin.

12:30 Dantzak eta musika, Kezka dantza taldearekin, Eibarko Trikitilariekin eta Os Galaicos-ekin.

14:00 Lore-eskaintza Castelaoren orogarrian.

16:30/18:30 Jolasak (Odisea joko-elkarteak).

18:30/20:30 Ustekabe txaranga.

22:00 Amaiera. Urkizu.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Banda. Coliseo..

ASTELEHENA 9

NAGUSIEN

HAMABOSTALDIA

12:00 Igel-toka txapelketa.

17:00 Karta-joko txapelketa (tutea, musa eta briska).

Ipuruako jubilatuetxea..

INFORMAZIO-SAIOA

18:00 Industria-mantentzearen digitalizazioa" espezializazio-ikastaro berria. Armeria Eskola.

MARTITZENA 10

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

EGUAZTENA 11

NAGUSIEN

HAMABOSTALDIA

18:30 "Erretiroa eta sasoiaren jarraitzea" hitzaldia, Pili Arinen eskutik. Ipuruako jubilatuetxea.

EGUENA 12

INFORMAZIO-

JARDUNALDIA

09:30/11:30 Eusko Jaurlaritzaren Enpresa Txiki eta Ertainei zuzendutako 2022ko laguntza-planaren aurkezpena. Debegesa..

HITZALDIA

10:00/12:00 "Eibar, flysch eta sumendien arteko itsaspeko iragana". Inma Mugerza Perelló geologoa-ren eskutik. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-

emailentzat. Anbulatorioa

TAILERRA

17:00/18:00 Gantxillak egiteko tailerra, umeentzat (12 urtetik gorakoentzat 18:15etik 19:30era). ...eta kitto! Euskara Elkartea.

GNAT ZINEMA

19:00 "Lo que el pulpo me enseñó" (Craig Foster). Coliseo.

ANTZERKIA

20:00 "Altsasu. La dramática errante" (Maria Goiricelaya). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 29ra arte:

- **ELENA PLAZA, EVA FRANCO, KOLDO VADILLO, OSKAR MANSO.** (Portalea).
- **JUAN ANTONIO PALACIOS.** (Topaleku).
- **XLVIII. NAZIOARTEKO GIPIZKOA SARIA** (Untzagako Jubilatuetxea).

Maiatzaren 31ra arte:

- **ARGIZAIOLA 2021.** (Klub Deportiboa).
- **EIBARKO KLUB DEPORTIBOA.** (Portalea taberna).
Ekainaren 5era arte:
- **"Istripuak eta Prebentzioa. XX. Mendeko kartelak".** (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

6an (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia

"Ameriketako bidaiaria".

Tanttaka Teatroa.

Sarrera: 10 euro.

ITZIAR

ERROMERIA EGUNA

7an (zapatua)

11:00 Kalejira.

12:00 Mokadua.

12:15 Dantza eta trikitia.

13:00 Kalez-kale.

14:30 Herri-bazkaria.

18:00 Erromeria.

21:30 Erromeri-afaria.

SORALUZE

IRUKURUTZETA EGUNA

8an (domeka) / 11:00

Salda eta txorizoa

banatuko dituzte.

MENDI MARTXA

8an (domeka) / 12:00

Plaza Barria

Karakatera, parke eolikoaren aurka

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **7an:** 19:45, 22:30
- **8an:** 20:00
- **9an:** 20:30

“El hombre del Norte”

Zuzendaria: Robert Eggers



2 ARETOA

- **7an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **8an:** 17:00, 20:00
- **9an:** 20:30

“Alcarrás”

Zuzendaria: Carla Simón



ANTZOKIA

- **7an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **8an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **9an:** 20:30

“Downtown Abbey”

Zuzendaria: Simon Curtis



ANTZOKIA

- **7an:** 17:00
- **8an:** 17:00

“El secreto de Vicky”

Zuzendaria: Denis Imbert





Josefa Avenidaño Perez

2022/05/04

“Beti gure bihotzetan
izango zaitugu”

- ZURE FAMILIA -





Nerea Gallastegi Aizpurua

7. URTEURRENA
2015/05/05

“Gure bihotzetan
jarraitzen duzu”

- ZURE FAMILIA -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **AIMAR**, hillaren 2xan 5 urte bete zenduazena. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **JULEN!!!** Eguaztenian 6 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun. Etxekuen partez.



Zorionak, **MAIALEN**. Bixar 7 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MALEN!!!** Martitzenian 6 urte bete zenduazena! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **CAROL**, gure printzesa, gaur 7 urte bete dozuz-eta. Musu pillua etxekuen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **EKHI!!!** Gaur urtetxua betetzen dozu-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!!!



Zorionak, **JULEN!** Martitzenian 8 urte bete zenduazena. Pillo maite zaittugu!! Musu haundi bat!!!

FUNEUSKADI
Grupo Atenea

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREATIVO
EUGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xizilion, s/n, SIGMA Industriaidea (Olasoko hileraren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

**San Andres
Gozologia**

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ **943 20 79 73**

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan
 - Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (gara-jea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.
 - Zumaian 2 gelako etxe berria alokagai ekaina, uztaila, abuztua eta irailerako. 4 lagunentzat aproposa. Igogailuarekin. Hondartzatik gertu. 722612247.

- Senar-emazteak 2 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Erreferentziekin. 667060292.
- Zumaian uztaila eta abuztura-ko 3 logela dituen etxe bat patzen dihardugu. 659261089.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Trasteroak salgai Eibarko erdialdean. Sarbide onarekin. 2.000 eurotik hasita. 620099120.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenekin lan egiteko. Akreditazioarekin. Urte askotako esperientzia. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Agiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauez ere) eta etxeak garbitzeko. Habilitazio ziurtagiriarekin. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osozko disponibilitatea. 602012075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osozko disponibilitatea. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. Titulazioarekin. 612540997.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 641421135.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 692932984.
- Gizonezkoa eskaintzen da baserri eta landetan lan egiteko. 624680606.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 622233171.
- Neska eskaintzen da umeak eskolara eraman eta jasotzeko, eskolako zereginetan laguntzeko eta maskotak zaindu eta pasiatzeko. 602353585.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641942123.
- Neska emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 641947065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazio ziurtagiriarekin. 643622939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631109062.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Astegunetan arratsalde eta asteburuetan egun osoz. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 655991987.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, zaintzaile bezala eta erakuntzan jarduteko. 641055198.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 624669425.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak edo umeak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioa eta autoarekin. 612223075.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar da Eibarko harategi batean. 647526441.
- Pertsona euskalduna behar da goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Higienistak eta laguntzaileak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. 621226244.
- Emakumea behar da astelehenerik ostiralera (goizez 3 ordu eta arratsalde besterik) etxeko lanak egin eta emakume bat pasiatzeko. Gida-baimena izatea baloratuko da. 670410107.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Menpekotasuna dutenak mugitzeko garabia, erroberadun-aulkia eta taka-takak salgai. 661874548.

6.2. Eman

- 1.500 piezetako puzzleak oparitzen dira. 619655583.
- Txakurkume ezin politagoak oparitzen dira. 688642761. Asier.

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9tik 27ra

IKASTETXE PUBLIKO
DOAKOAK



F

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK



A

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arretasaldetara
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA



I

- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



- ESPEZIALIZAZIOAK
- ZIBERSEGURTASUNA
- INFORMAZIOAREN
- TEKNOLOGIEN
- INGURUNEETAN

100 BAKARRI DOAKOAK 100 BAKARRI DOAKOAK

www.uni.eus

Otazlea Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943.89.92.11 | ikastaritza@uni.eus | @uni.eus

eta kitto!

euskara elkartea

Euskara-planak, itzulpengintza-zerbitzua, diseinu- eta komunikazio-lanak...

ETA ORAIN...

Negozio, enpresa edo erakundeentzako
ikus-entzunezkoen zerbitzua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe Tel. 943 20 09 18

ESTASIÑU

Arizaga eraikina,
bila zenbiltzan geltokia

SALTZEN
HASI GARA


MULIATE
PROMOCCIONS
INMOBILIARIES

Etxebizitzak terraza, garaje eta trasteroarekin

2 logelakoak (224.000 €-tik hasita) eta 3 logelakoak (260.000 €-tik hasita)

100 m² erabilgarri dituzten etxebizitzak aukeran



943 20 12 13
www.estasiñu.com

 **BAIONDO**

INMOBILIARIA & HOME STAGING

